

KOD.: A121

ARTE ESZENIKOETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

***LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu.
Galderak: 120.***

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Eredua marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagaritik

1.- Aukeratu zuzena:

- a) Gasteizko Principal Antzokiak 17 eserleku-ilara ditu besaulki-patioan.
- b) Gasteizko Principal Antzokiak lehentasunezko 6 palko ditu.
- c) Gasteizko Principal Antzokiak ilara gutxiago ditu lehen anfiteatroan bigarrenean baino.
- d) Gasteizko Principal Antzokiak ez du mugikortasun murriztuko pertsonentzako lekua duen palkorik.

2.- Aukeratu okerra:

- a) 2 eta 4 eserleku dituzten palkoak daude Gasteizko Principal Antzokian.
- b) Gasteizko Principal Antzokiko bigarren anfiteatroko ilara guztiek eserleku-kopuru bera dute.
- c) Gasteizko Principal Antzokiko lehen anfiteatroko eta bigarreneko eserlekuen batura plateako eserlekuen kopurua baino handiagoa da.
- d) Gasteizko Principal Antzokiko lehen anfiteatroak ez du palkorik.

3.- Aukeratu zuzena:

- a) Gasteizko Principal Antzokia 1918an inauguratu zen, Nuevo Teatro Clásico izenarekin.
- b) Sebastián Iradierri bururatu zitzaion Gasteizko Principal Antzokia, Madrileko Teatro de la Zarzuela antzokiak iradokita.
- c) Lehenengo izena ez zen izan Teatro Principal; 1955ean eman zitzaion izen hori.
- d) 1822 eta 1914 artean lehen antzoki bat izan zen, ospitalea zegoen orubean.

4.- Gasteizko Udal Antzokien Sareko antzokiak erabili ahal izateko arau orokorren arabera:

- a) Gutxienez 30 egun lehenago egin behar da eskabidea, idatziz edo telefonoz.
- b) Ikuskizuna egiten den egunaren ondoko 7 eguneko epean ordaindu beharko da alokairua.
- c) Muntatze- eta desmuntatze-lanen eta aretozaintzaren esleipendun diren enpresei ordaintzea lagapen edo alokairuaren ordainketaren barruan sartzen da.
- d) Erabilera-tasan sartzen diren oinarritzko zerbitzuak dira hornidura teknikoa, agertokia ganbera beltzarekin eta hornikuntzak.

5.- Gasteizko Udalaren gizarte-etxeen sareko antzokien edukierak...

- a) ez dira 300 lekura iristen, kasu batean ere.
- b) 300 lekutik beherakoak dira, Beñat Etxepare antzokiaren kasuan izan ezik.
- c) 300 lekutik beherakoak dira, Félix Petite antzokiaren kasuan izan ezik.
- d) 300 lekutik beherakoak dira, Jesús Ibáñez de Matauco antzokiaren kasuan izan ezik.

6.- Gasteizko Udal Antzokien Sareko antzokiak erabili ahal izateko arau orokorren arabera:

- a) Sarrera kobratzea orokorra eta nahitaezkoa izango da.
- b) Inolaz ere ezingo da sarrerarik kobratu.
- c) Inolaz ere ezingo da sarrerarik kobratu berariaz baimena eman ezean.
- d) Antolatzailea behartuta egongo da leihatilako diru-sarreraren % 10 itzultzera, sarrera-salmentarik badago.

7.- Aukeratu okerra:

- a) Félix Petite antzokia da Gasteizko Udal Sareko azpiegitura eszeniko modernoena.
- b) Jesús Ibáñez de Matauco antzokiak hartzen ditu Jim Aktual eta XXI. Mendeko Jazza zikloak.
- c) Federico García Lorca antzokian arte eszenikoen eta musikarako hezkuntzaren arloetako hainbat programa bideratzen dira.
- d) Beñat Etxepare antzokia da erabiltzeko eskari gehien jasotzen dituen sareko antzokia.

8.- 3 urtetik beherako haurrei gagozkielarik:

- a) Ezin dira Gasteizko Principal Antzokira sartu.
- b) Ez dute eserlekurik okupatzen.
- c) Doako sarrera bat eskuratzera behartuta daude, segurtasun-berme gisa.
- d) Dagokien sarrera eduki behar dute, gainerako ikusleek bezala.

- 9.- Ba al dago leihatilan emanaldiaren egunerako sarrerak erreserbatzeko obligaziorik?
- Bai, besaulki-patioko lehenengo 3 ilarak.
 - Bai, lehenengo 3 ilarak eta palkoak, Gasteizko Principal Antzokiaren kasuan.
 - Bai, arrazoi teknikoengatik erreserbatu beharreko sarrerak.
 - Ez dago sarrerak erreserbatzeko legezko obligaziorik.
- 10.- Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren helburuen artean dago: (Adierazi erantzun OKERRA)
- Tokiko konpainiak sustatzea.
 - Egile klasikoei atzera begirakoak eskaintzea.
 - Nagusiki arte-mintzaira ororen aldeko apustua egitea, abangoardietatik klasikoetaraino.
 - Antzezpenarekin zerikusia duten gaiei buruz eztabaidatu eta hausnartzeko guneak sortzea.
- 11.- Aukeratu zuzena:
- Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia 1975ko irailean sortu zen, eta, hasieratik eta 2002ra arte, Félix González Petitek zuzendu zuen.
 - Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren lehen emanaldia La Farándula konpainiak eman zuen.
 - Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren lehen emanaldia Florida antzokian izan zen, 1975ko irailaren 29an.
 - Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren lehen ediziotik izan zen atzerriko talderik.
- 12.- Gasteizko Udalak gaur egun antolatzen dituen arte eszenikoen arloko jaialdi eta programak:
- KaldeArte, Txotxongilo txoroak, Butaka Txikia, Magialdia.
 - Haur Ikuskizunen Erakustaldia, Butaka Txikia, Txotxongilo txoroak, Dibertikale.
 - Intacto, KaldeArte, Txotxongilo txoroak, Magialdia.
 - KaldeArte, Butaka Txikia, Jim Aktual, 150 gramo.
- 13.- KaldeArte:
- Arte eszenikoen jaialdi bat da, zeinen helburu nagusia konpainia lokalen antzezlanak sustatzea baita.
 - Kalea arte eszenikoen inguruko hezkuntza- eta partaidetza-espazio bihurtzea du helburu.
 - Datorren uztailean XIV. edizioa izango da.
 - Kalea kultur sorkuntza eta zabalkunderako espazio bihurtzea du helburu.
- 14.- Aukeratu korrelazio zuzena:
- Monstrenkas jardunaldiak – antzerki alternatiboa – udaberria.
 - Txotxongilo txoroak – parkeak – uda.
 - Intacto – Gorbeia kaleko azoka – Eguberriak.
 - Zurrumbilo – hainbat espazio eszeniko – udaberria.
- 15.- Kultur proiektu eszeniko hauetatik, zeinek ez zuen izan Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuaren dirulaguntzarik 2017an?
- Bertako Fest.
 - 150 gramo.
 - Monstrenkas jardunaldiak.
 - Zurrumbilo jaialdia.

16.- Udalaren Antzoki Sareak lau denboraldi hauetan dauka egituratua bere programazioa:

- a) Negua, udaberria, udazkena eta Eguberriak.
- b) Negua-udaberria, uda, Andre Maria Zuriaren jaiak eta udazkena-Eguberriak.
- c) Negua, udaberria, uda-Andre Maria Zuriaren jaiak eta udazkena-Nazioarteko Antzerki Jaialdia.
- d) Negua-udaberria, uda, udazkena eta Eguberriak.

17.- Euskadiko Orkestra Sinfonikoak hilabete hauen artean egiten du Gasteizko Principal Antzokiko kontzertuen denboraldia:

- a) urritik ekainera.
- b) urritik maiatzera.
- c) urritik abendura eta otsailetik ekainera.
- d) urritik abendura eta urtarriletik maiatzera.

18.- Hauetako zein ez da Gasteizko Antzoki Sarearen helburu estrategikoetako bat:

- a) Kalitateko programazioa eskaintzea, irisgarria, anitza eta askotarikoa.
- b) Sorkuntza eszenikoaren eta artistikoaren mintzaira berrien alde egitea.
- c) Ohiturak fidelizatzea eta publiko berriak sortzera zuzendutako programazioa eskaintzea.
- d) Antzerki publikoaren eta kulturaren aldeko zerbitzuaren bokazio argia erakustea.

19.- Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen helburuetako bat da:

- a) Principal antzokiaren lagapen eta alokairuen portzentajea mugatu eta arautzea.
- b) Gizarte-etxeetako programazioa bultzatzea.
- c) Antzerki- eta dantza-konpainiekiko hitzarmenak arautzea.
- d) Ezohiko ikusleak erakartzea.

20.- Ondoko hauetatik, zein ez da Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen indarguneetako bat?

- a) Ikuslegoa sendotzea, prezioak doitzeko ahalegin handia eginez.
- b) Lantaldea, zeinek antolakuntza-egitura oso profesionala baitu.
- c) Herritarrekiko zuzeneko komunikazioa, forma berrietan oinarritua: sare sozialak, webgunea...
- d) Dirulaguntza orokorrak nahiz izendunak, baita leihatilako diru-sarrerak ere.

21.- Gasteizko Udalaren Antzoki Sareak hauetatik jasotzen ditu dirulaguntzak:

- a) INAEM, Platea, Antzerki Jaialdien Zirkuitua.
- b) Sarea zirkuitu hitzartua, Eusko Jaurlaritza, Platea.
- c) Sarea dantza-zirkuitua, INAEM, Zirkuitu alternatiboen sarea.
- d) IETM, Sarea dantza-zirkuitua, Sarea zirkuitu hitzartua.

22.- Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen hobekuntzak eta erronkak: (Adierazi erantzun OKERRA)

- a) Egiteke dagoen Principal antzokiaren eraberritzea.
- b) Ohikoak ez diren ikusleak erakartzea, hala nola gazteak eta ikuslego euskalduna.
- c) Nazioarteko programazioa sendotzea, urtean zehar.
- d) Antzerki- eta dantza-konpainiekiko hitzarmenak arautzea.

23.- Principal antzokiaren eraberritze integrala aurreikusia dago, helburu nagusi batekin:

- a) Antzokia behar eszeniko eta artistiko berrietara egokitzea.
- b) Antzokia erosotasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-eskakizunetara egokitzea.
- c) Antzokia kalitate akustiko eta bisualaren gutxieneko parametroetara egokitzea.
- d) Kutxa eszenikoa muntaketa berrien beharretara egokitzea.

24.- Ondoko abonamendu-mota hauetatik, zein ez dago Gasteizko Udalaren Antzoki Sarean?

- a) Euskarazko antzerkirako abonamendua.
- b) Helduentzako antzerkirako abonamendua.
- c) Familientzako antzerkirako abonamendua.
- d) Gizarte-etxeetako antzerkirako abonamendua.

25.- Zenbat ikusle izan zituen Principal antzokiak 2017an, zifra biribiletan?

- a) 77.000
- b) 97.000
- c) 107.000
- d) 127.000

26.- Zein okupazio-portzentaje izan zuen Principal Antzokiak, gutxi gorabehera, 2017ko lau denboraldiak kontuan hartuta?

- a) % 70
- b) % 75
- c) % 80
- d) % 85

27.- Zein ekitalditarako egiten da urtero Principal antzokiaren lagapena? (Adierazi erantzun OKERRA)

- a) Magialdia.
- b) San Prudentzioko pregoia.
- c) Urrezko Zeledonak ematea.
- d) Jazzaldia.

28.- Ondoko hauetatik, zein ez da Gasteizko gizarte-etxeetako antzoki-sarearen helburuetako bat?

- a) Antzerki-ekipamenduen eskaintza osatzea, ikuslego motei dagokienez.
- b) Antzerki-ekipamenduen eskaintza osatzea, formatu freskoagoi dagokienez.
- c) Antzerki-ekipamenduen eskaintza osatzea, mintzaira berriak garatzeari dagokionez.
- d) Antzerki-ekipamenduen eskaintza osatzea, proiektu eszenikoetarako egoitzak sortzeari dagokionez.

29.- Ziklo hauetatik, zein egiten da Federico García Lorca antzokian?

- a) Jim Aktual.
- b) XXI. Mendeko Flamenkoa.
- c) Haurtxoak proiektua.
- d) Udal Bandaren kontzertu didaktikoen programa.

30.- Félix Petite antzokian urtean zehar egiten diren ikuskizunen ezaugarri komunak: (Adierazi erantzun OKERRA)

- a) Ikusleek parte hartzeko diseinatutako ikuskizunak.
- b) Ikuskizun garaikideagoak, eta mintzaira eszeniko berriak baliatzen dituztenak.
- c) Beren esentziaz gozatzeko leku txikiak eskatzen dituzten ikuskizunak.
- d) Kalitate egiaztatuko konpainien ikuskizunak.

31.- Gasteizko gizarte-etxeen udal sareko zein antzokik hartu ohi du ikusle gehien?

- a) Beñat Etxepare antzokia.
- b) Félix Petite antzokia.
- c) Jesús Ibáñez de Matauco antzokia.
- d) Federico García Lorca antzokia.

32.- Zein baldintza hartzen da kontuan Gasteizko Udaleko Antzoki Sarearen Atalean Dante aretoak erabiltzeko baimena emateko?

- a) Irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
- b) Arabako lurralde historikoan erroldatutako kideak.
- c) Antzerki- edo dantza-ikuskitzen baten proiektua.
- d) Gehienez 6 hilabeteko epean jendaurrean estreinatzea.

- 33.- Zein irizpide baloratzen dira Gasteizko Udaleko Antzoki Sarearen Atalean Dante aretoak erabiltzeko baimena emateko? (Adierazi erantzun OKERRA)
- Ohikoak ez diren espazio eszenikoetarako ikuskizun-proposamena.
 - Ohikoak ez diren ikuslegoentzako ikuskizun-proposamena.
 - Genero-berdintasuna bultzatzen duen proiektua.
 - Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituen proiektua.
- 34.- Duela 25 urtetik hona Beñat Etxepare antzokian egiten den hezkuntza-proiektua hauei zuzenduta dago:
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.
 - Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.
 - Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.
 - Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.
- 35.- Zein kategoria bereizten dira Beñat Etxepare Sariatari, Gasteizko Beñat Etxepare antzokiaren programa eszenikoaren barruan?
- Ikuslearentzako saria, ikastetxeentzako saria eta interpretaziorik onenaren saria.
 - Poetefaren saria, antzerki-kritikarik onenaren saria eta irudi grafikorik onenaren saria.
 - Interpretaziorik onenaren saria, ikastetxeentzako saria eta antzerki-kritikarik onenaren saria.
 - Mind The Gap saria, irakaslerik onenaren saria eta antzerki-kritikarik onenaren saria.
- 36.- Sorkuntza eszenikoko zein zentro dago Araban?
- Sarobe arte eszenikoen gunea.
 - Harri Xuri Kulturgela.
 - Dantzagunea.
 - Garaion Sorgingunea.
- 37.- Kultur sorkuntzarako espazio hauetatik, zeinek ez du helburutzat arte eszenikoen arloko sorkuntza?
- Azala.
 - ARTgia.
 - KunArte.
 - Teatro.
- 38.- Arabako arte eszenikoetako konpainiak:
- Ameztu, Trotamundos, Dikothomia.
 - Dramagia, El Mono Habitado, Zirkun.
 - Zurrunka, Turukutupá, AlTraste.
 - Larrua, Zanguango, Garazi & cía.
- 39.- Antzerkigintza Berriak programako balioespen-irizpideak: (Aukera OKERRA adierazi)
- Eskatzailearen sorkuntza-ibilbidea.
 - Genero-diskriminazio positiboa bultzatzen duen proiektua.
 - Eskatzen den motibazio-kartaren interesa.
 - Planteatutako abiapuntuaren originaltasuna.
- 40.- Antzerkigintza Berriak programaren onuradun diren pertsonen betebeharrak:
- Antolatutako hiru antzezlanak aurkezteko jardunaldietako bakoitzean parte hartzea.
 - Programaren hurrengo edizioan epaimahaian parte hartzea.
 - Tutoretzapeko prozesuaren barruan obra dramatiko bat sortzea.
 - Sortzen den obraren eskubideak lagatzea, gehienez urte betez.

41.- Zein hautaketa-irizpide hartzen dira kontuan Karrikan plataformara aurkezten diren proiektuak baloratzeko?
(Adierazi erantzun OKERRA)

- Zuzendari profesional baten kanpoko laguntza edo ikuspegia.
- Artisten edo konpainiaren bizileku edo egoitza.
- Deialdiaren egutegia errespetatzen den.
- Konpainiaren profesionaltasun-maila.

42.- Gasteizko Udalez gain, beste zein bazkide ditu Karrikan plataformak?

- Bilboko Udala, Donostiako Udala eta Iruñeko Udala.
- Bilboko Udala, Hendaiako Udala eta Iruñeko Udala.
- Donostiako Udala, Hendaiako Udala eta Euskal Herriko Mankomunitatea (Lapurdi).
- Bilboko Udala, Iruñeko Udala eta Zarauzko Udala.

43.- Antzerkirako eta zirkurako zein laguntza-mota ez da ageri Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música erakundearen urteko azken deialdian?

- Estatu-mailako antzoki-areto pribatueterako bi urteko programazioetarako laguntza.
- Antzerki- eta zirku-koprodukzioen autonomien arteko biretarako laguntza.
- Esparru autonomikoko elkarte, federazio eta konfederazioentzako laguntza, antzerki- eta zirku-jardueretarako.
- Atzerrian antzerki- eta zirku-produkzioak egiteko laguntza.

44.- Baieztapen hauetatik, zein dator bat INAEMen PLATEA programara bildu ahal izateko baldintzetako batekin?

- INAEMek bi kontratu formalizatzen ditu emanaldi bakoitzeko: bata kanpainarekin eta bestea atxikitako udalarekin.
- Konpainiaren *cache*-aren % 65 bermatzeko konpromisoa hartzen du INAEMek —gehienez 12.000 euro gehi BEZ—, leihatilako diru-bilketaren osagarri, baldin era hori nahikoa gertatzen ez bada.
- Toki-erakundeak *cache*-aren % 35 ordaintzeko konpromisoa hartzen du, baldin eta konpainiari dagokion diru-bilketaren parteak hitzartutako *cache* osoa estaltzen ez badu.
- Kaleko emanaldien kasuan, INAEMek *cache*-aren % 65 hartuko du bere gain beti, eta toki-erakundeak % 35.

45.- Zein modalitatetan egiten du laguntza-deialdia Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, arte eszenikoak sustatzeko?

- Antzokiaren esparruko profesionalen prestakuntza, dantza-prestakuntza, Estatuko birak eta nazioartekoak.
- Egoitza-proiektuak, kaleko antzerkiko prestakuntza, konpainientzako dantza-zirkuitua.
- Dantza-zirkuitua, kaleko antzerkiaren programazioa udalentsat eta egoitza-proiektuak.
- Antzokiaren esparruko profesionalen prestakuntza, kaleko antzerkiaren programazioa konpainientzat eta dantza-zirkuitua konpainientzat.

46.- Baieztapen hauetatik, zein ez dator bat SAREA Euskadiko Antzoki Sarearekin?

- 1993an sortutako erakunde arteko sarea da, arte eszenikoen arloko programazio egonkorra koordinatu, bultzatu eta hedatzea helburu duena.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, hiru foru aldundietako kultura-arloek eta sareari atxikitako 60tik gora antzoki eta aretok parte hartzen dute.
- Topagunea eta elkarrizketa-foroa eta informazio-iturri fidagarria eta eraginkorra izateko helburuarekin sortu zen.
- Espazio eszeniko publikoen barne eta kanpo koordinaziorako tresna izan nahi du.

47.- Zertan gauzatzen da Etxepare Euskal Institutuak nazioarteko merkatu eta azoka profesionaletan parte hartzeko arte eszenikoen arloan ematen duen dirulaguntza?

- Bidaia- eta ostatu-gastuak.
- Bidaia-gastuak eta aretoen alokairua.
- Zabalkundea eta publizitatea.
- Aurreko guztiak.

48.- Arte eszenikoetako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko karta. Zein helburu ez du jasotzen, ekoizpenari eta zabalkundeari dagokienez?

- a) Egoitzetan gizonetzko adina emakumezko artista hartzea.
- b) Gizonetzkoek eta emakumezkoek zuzentzen dituzten lan eszenikoen programazioan oreka bilatzera jotzea.
- c) Koprodukzio-baliabide berak baliatzea gizonetzko eta emakumezko egileen ikuskizunetarako.
- d) Baliabide finantzarioak berdintasunez banatzea gizonetzko eta emakumezko artisten artean.

49.- Arte eszenikoetako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko karta. Gobernantza-helburuak:

- a) Berdintasun-irizpidea txertatzea arte eszenikoen arloko enpresa laguntzaileen kontratazioan.
- b) Berdintasun-irizpidea aplikatzea arte eszenikoen arloko sail eta zerbitzuetako postu politiko eta zuzendaritza-postuetan.
- c) Parekotasuna ezartzea esparru eszenikoko lanpostuetarako hautaketa-epaimahaietan.
- d) Arte eszenikoekin zerikusia duten lanbideen izenei genero femeninoa aplikatzea.

50.- Zein da Arte eszenikoetako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko kartaren egungo egoera, Gasteizko Udalean?

- a) Aho batez onetsi zuten udalbatzako talde politiko guztiek.
- b) Udal gobernukideen ekimenez onetsi zen.
- c) Talde politiko batek aurkeztu zuen, baina ez zen aurrera atera, gehiengo kualifikaturik lortu ez zuenez.
- d) Atxikimendu-mozio bat aurreikusia dago, baina data finkorik gabe.

51.- Zein apaingarri ageri dira Gasteizko Principal Antzokiaren egungo fatxada-buruan?

- a) Balaustrada bat, harrizko hainbat pinakulurekin, eta Gasteizko armarrria.
- b) Balaustrada bat, harrizko hainbat pinakulurekin, eta forma zirkularreko harrizko gailur handi bat.
- c) Balaustrada bat, harrizko hainbat pinakulurekin, eta kanpai-hormaren formako harrizko gailur handi bat, Talia eta Melpomene musen buruekin.
- d) Balaustrada bat, harrizko hainbat pinakulurekin, eta kanpai-hormaren formako harrizko gailur handi bat, komediaren musaren buruarekin.

52.- Zein elkarte eta erakunde izan dira Gasteizko Principal Antzokiaren jabe, 1918an eraiki zenez geroztik? Adierazi OKERREKO erantzuna

- a) Nuevo Teatro de Vitoria elkartea.
- b) Círculo Vitoriano.
- c) Jesusen Konpainia.
- d) Sociedad Vitoriana de Espectáculos SA.

53.- Arte eszenikoen arloko prestakuntza, Gasteizen. Arte Eszenikoen Lantegia:

- a) Gasteizko Udala da titularra, eta Porpol Teatro konpainiak kudeatzen du.
- b) Cooperativa de Producción Teatral Denok kooperatibak kudeatzen du.
- c) Arabako Foru Aldundiaren babesu du, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa.
- d) Zuzendaritza eta kudeaketa Porpol Teatro-ren esku utzita daude 1977tik —urtero berritzen da enkargua—.

54.- Gasteizko Arte Eszenikoen Lantegian ematen diren ikastaroen artean, ez dago honako hau:

- a) Antzezle profesionalen prestakuntza.
- b) Gazteentzako antzerki musikala.
- c) Haurtxoentzako ikastaroa.
- d) Haurrentzako dantza eta zirkua.

55.- Euskal Autonomia Erkidegoan kultur eskaria aktibatzen politikak. Azken urteetako esperientziak: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) KulturKlik.
- b) Kultura bonoa.
- c) Kultura Bultzatuz.
- d) GaztetaTick.

56.- Antzoki Sarearen eta musika-eskolen arteko lankidetzak. Gasteizko Udal Folklore Akademiak kontzertu pedagogikoak egiten ditu:

- a) bi astez, modu intentsiboan, sareko hainbat antzokitan.
- b) Lehen Hezkuntzarako “Gure jaiak” izeneko zikloaren barruan.
- c) Bigarren Hezkuntzarako “Arabako dantza eta doinuak” izeneko zikloaren barruan.
- d) hiriko entzute handiko musikari bat protagonista delarik.

57.- Antzoki Sarearen eta musika-eskolen arteko lankidetzak. Gasteizko Principal Antzokian ikasturte bukaerako kontzertuak egiten dituzten eskolak:

- a) Udalaren Folklore Akademia, Luis Aranburu Udal Musika Eskola eta José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa.
- b) Luis Aranburu Udal Musika Eskola eta José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa.
- c) Udalaren Folklore Akademia eta Luis Aranburu Udal Musika Eskola.
- d) Udalaren Folklore Akademia, Luis Aranburu Udal Musika Eskola, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa eta Jesús Guridi Goi-mailako Kontserbatorioa.

58.- Arte eszenikoetako goi-mailako teknikari-lanpostuaren berriazko zereginen artean dago:

- a) Bere kargura dituen langileen eta kontratatutako enpresen lana ikuskatzea.
- b) Kontratuaren, lankidetzak-hitzarmenen eta funtzionamendu-araudien jarraipena egitea.
- c) Bere kargura dituen teknikariak koordinatzea, neurriak martxan jartzeko orduan.
- d) Esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzea.

59.- Zeregin hauetatik, adieraz ezazu zein ez dagokion Arte eszenikoetako goi-mailako teknikariaren titulazio-taldeari:

- a) Baldintza teknikoaren agiriak taxutzea.
- b) Zerbitzua, saila edo erakundea ordezkatzeko.
- c) Esleitutako baliabide ekonomikoak eta materialak kudeatzea.
- d) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko arauak eta jarraibideak betetzeaz arduratzea.

60.- Arte eszenikoetako goi-mailako teknikari-lanpostuko gaitasunak:

- a) Atzeraelikadura- eta komunikazio-trebetasunak.
- b) Taldeko lana eta lanaren ikuspegi globala.
- c) Baliabideak optimizatzeko trebetasunak.
- d) Erantzukizuna, prestutasuna eta autoestimua positiboa.

61.- Kultur politikez dihardugularik, zertaz ari gara ondasun komunez ari garelarik, Nicolás Barbieriren arabera?

- a) Produktu eta zerbitzu publiko nahiz pribatuak.
- b) Sorkuntza-, banaketa- eta kontsumo-sistema produktiboa.
- c) Sistema hibridoa, rolen zehaztapen argirik gabekoa.
- d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

62.- Zeri egiten dio erreferentzia kultura deskulturalizatzearen kontzeptuak, Victor Vichen hitzetan? Erantzun OKERRA aukeratu

- a) Kultura eraldaketa sozialaren agente gisa posizionatzea.
- b) Espazio lokalen kultura kudeatzea.
- c) Itxuraz kulturalak ez diren fenomenoaren dimentsio kulturalak agerraraztea.
- d) Kultur politika garbi eta autonomoak bultzatzea.

63.- Gasteizko Turismo Plan Estrategikoa. Zein ardatzetan dago kokatua hiriko kultur ekitaldien zabalkundea?

- a) 1. eta 2. ardatzak.
- b) 2. eta 3. ardatzak.
- c) 3. eta 4. ardatzak.
- d) 4. eta 5. ardatzak.

64.- Gasteizko Turismo Plan Estrategikoa. Zein ekintza planteatzen ditu, kulturari dagokionez, 2018-2020 urteetarako planak? Aukera OKERRA adierazi:

- a) Ekitaldiak kategorizatzea, hiriarentzat duten kostuaren eta eragin edo onuraren arabera.
- b) Ekitaldien urteko egutegia argitaratu eta zabaltzea.
- c) Ekitaldi kulturaletara hautagaitzak aurkezteko laguntza logistikoa.
- d) Hiri Sortzaileen Sarearen proiektuetan parte hartzea bultzatzea.

65.- Kultura Zerbitzuak Talde Gunerekin duen akordioak honetarako entsegu-aretoak laguntzen ditu diruz:

- a) hiriko musika-taldeen beren konposizio musikalak sortu, entseatu eta grabatzerik izan dezaten.
- b) Arabako musika-taldeen beren konposizio musikalak sortu, entseatu eta grabatzerik izan dezaten.
- c) Gasteizko musika-talde berriek beren konposizio musikalak sortu eta entseatzerik izan dezaten.
- d) Arabako bakarlariek eta musika-taldeen beren konposizio musikalak sortu, entseatu eta grabatzerik izan dezaten.

66.- Talde Guneko entsegu-aretoen zerbitzua erabiltzeko araudia. Aukera OKERRA adierazi.

- a) Astean gutxienez 2 orduz erabili beharko da aretoa, eta musika-talde berak ezingo du erabili 4 orduetik gora, segidan.
- b) Musika-talde bakoitzak orduko 5 euro ordainduko du, kudeaketa-, kontsumo-, mantentze- eta garbiketa-gastuetarako.
- c) Hiruhileko osoa ordaindu beharko da aldezturik.
- d) Gasteizko Udalak aretoaren prezioaren % 60 laguntzen du diruz, eta beste % 40a Talde Gune Gasteiz SL sozietateak.

67.- Etorkizuneko Gasteiz Antzokiaren proiektua:

- a) 1250 m²-ko espazioa izango da, lau solairutan banatuta, sarrera nagusia Errementari kaletik duela.
- b) Ruiz de Bergaratarren jauregian egongo da —Erdi Aroko hiriguneko eraikinik xarmagarrienetako bat, XV. mendekoa—.
- c) 274 m²-ko espazio eszenikoa izango du, 103 m²-ko ostalaritza-espazio bat eta ekitaldi eta erakusketetarako hainbat areto.
- d) 400 pertsonentzako edukiera aurreikusten da, eta taberna batenaren antzeko ordutegiak.

68.- Gasteizen burutzen diren ekitaldi hauetatik, zeinek du helburutzat musika-talde lokalei laguntzea eta zabalkundea ematea:

- a) Osteguna Rock.
- b) Jazz uhinak.
- c) Jazzaharrean.
- d) Belar Sounds.

69.- Gasteizko musika-ekitaldi hauetatik, zein da urtean lehenik hasten dena?

- a) Bernaola jaialdia.
- b) Big Band jaialdia.
- c) Gastroswing.
- d) Azkena Rock jaialdia.

70.- Ensemble Espacio Sinkrok antolatutako jaialdi hauetatik, zeinek du helburu XXI. mendeko musikaren dibertsitateari zabalkundea ematea?

- a) Sinkro jaialdia.
- b) Bernaola jaialdia.
- c) Musikaz Blai.
- d) Jo! Fest.

71.- Kulturaren 21 Agendak 67 artikulua ditu, gai-arlo hauetan zentratuta: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Kultura, iraunkortasuna eta garapena.
- b) Kultura eta gizarte-inklusioa.
- c) Kultura eta hizkuntza gutxituak.
- d) Kultura eta ekonomia.

72.- Kulturaren 21 Agendan hartutako konpromisoetako bat da:

- a) Egileen eta artisten eskubide sozialak, intelektualak eta moralak errespetatu eta bermatzea, eta horien bidezko ordaina.
- b) Kulturaren izaera publiko eta kolektiboa bultzatzea, publikoen kontaktua sustatuz hirian, bizikidetzara errazten duten ageraldi guztietan: zuzeneko ikuskizunak, zinema, jaiak...
- c) Sortzaile, egile, artista eta ikusleei gonbit egitea, hiri eta lurraldeekin konpromisoa har dezaten, elkarbizitza bultzatuz eta kulturen arteko espazioak ehunduz.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

73.- Honi egiten dio erreferentzia kulturartekotasunaren kontzeptuak:

- a) Dauden kulturetako bakoitza onartu eta baloratzea, berdintasun-marko batean.
- b) Barrera kulturalak desagerraraztea, kultura bakoitzaren berezitasunak aldezteko.
- c) Gizarte bakoitzaren kultur identitateak indartzen ahalegintzen den kontzeptu filosofikoa.
- d) Kultura minoritarioak kontserbatzearen aldeko interes bizia garatzen duten proiektuak sortzen ahalegintzen den kontzeptu filosofikoa.

74.- Honi egiten dio erreferentzia 'multikultural' terminoak:

- a) Ingurune geografiko batean hainbat kultura ezberdin izatea.
- b) Kulturen arteko erlazioa eta trukea.
- c) Interkonexio kulturala, mundu osoaren eskalan.
- d) Kultur sustrai ezberdinak batzea.

75.- Baieztapen hauetatik, zein da okerrekoa? Kulturaren 21 Agenda:

- a) Ekarpene handia da, plangintza estrategikoaren prozesuetara.
- b) Plangintza holistikoaren kontzeptua garatzen du.
- c) 'Demokrazia' eta 'kultura demokratizatzea' kontzeptuetan zentratzen da.
- d) Porto Alegren onartu zen azken dokumentua, 2004an.

76.- Zer ulertzen dugu masa-kulturatzat?

- a) Beren ezaugarriengatik edo ekoizpen-moduagatik pertsona-kopuru handi batek asimila ditzakeen kultur ekitaldiak.
- b) Publiko zabalarengana iristeko hedabideen eta informazioaren teknologia berrien premiarik ez duten kultur ekitaldiak.
- c) Kultura jantzi eta intelektualaren kontrako herri-ekitaldiak.
- d) Askatasun-idealak ezaugarritzen duen kultura, XX. mendearen bigarren erdian orbita komunistako herrialdeetan garatua.

77.- Kulturaren zein alderdi hartzen ditu herri-kulturak?

- a) Folklorea, mitoa eta alegia.
- b) Musika klasikoa, artea eta legenda.
- c) Eskulangintza, entsegu-literatura, antzerki klasikoa.
- d) Legenda, zinema, opera.

78.- Honetan datza kulturaren diagnostikoa:

- a) Dena delako merkatuan etorkizuneko estrategia eta ekintzak ezartzea.
- b) Ekintza-plan bat gauzatzea.
- c) Dena delako lurraldeko egungo egoeraren analisia egitea.
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

79.- Sektore-esparru tradizionalan zentratu izan dira politika tradizionalak: arte plastikoak, arte eszenikoak, irakurketa, ondarea, jaiak eta herri-kultura. Zein kultur esparru kontuan hartzen da gaur egun politika kulturaletan?

- a) Kultur turismoa.
- b) Kultur industriak.
- c) Hurbileko kultura.
- d) Guztiak zuzenak dira.

80.- Zerk ezaugarritzen du hurbileko ekipamendu bat?

- a) Gure herrialdean zabalduen dauden kultur ekipamenduak dira.
- b) Trantsizio demokratikoan libreki hautatutako lehenengo udalek sortutako kultur eklosioarekin erlazionatuta dago horien ezarpena.
- c) Izaera nagusiki lokala gailentzen da, bere sorrerak herritarren premia eta eskakizun bati erantzuten baitio, eta erreferentziatzko ekipamendu gisa nabarmentzen da, bere zehaztugabetasuna gorabehera —alderdi fisikoei nahiz edukiei eta erregulaziorik ezari dagokienez—.
- d) Guztiak egia dira.

81.- Kultur proiektu baten ebaluazioan hiru definizio-maila daude. Lehenengo mailan...

- a) tresna baliagarria da proiektuari berari buruz nahiz hurrengo deialdietan erabakiak hartzeko.
- b) ekoizpen-prozesua zenbateraino hoberena izan den jakitea interesatzen da.
- c) proiektuaren helburuak zenbateraino bete diren jakitera mugatzen da.
- d) Guztiak zuzenak dira.

82.- Kultur proiektu baten ebaluazioan hiru definizio-maila daude. Bigarren mailan...

- a) tresna baliagarria da proiektuari berari buruz nahiz hurrengo deialdietan erabakiak hartzeko.
- b) ekoizpen-prozesua zenbateraino hoberena izan den jakitea interesatzen da.
- c) proiektuaren helburuak zenbateraino bete diren jakitera mugatzen da.
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

83.- Emaitzen adierazleek hau ebaluatzen dute:

- a) Proiektua txertatzen den ingurunea nolakoa den eta nolako bilakaera duen.
- b) Planteatutako helburuak lortu diren ala ez, eta zenbateraino.
- c) Helburuak lortzeko baliabideen erabilera arrazionala.
- d) Epe luzeko lorpenak.

84.- Prozesu-adierazleek hau neurtzen dute:

- a) Proiektua txertatzen den ingurunea nolakoa den eta nolako bilakaera duen.
- b) Planteatutako helburuak lortu diren ala ez, eta zenbateraino.
- c) Helburuak lortzeko baliabideen erabilera arrazionala.
- d) Epe luzeko lorpenak.

85.- Babes intelektualaz ari garelarik, noiz dago babestuta obra edo prestazio bat?

- a) Lehenengoz argitaratzen direnetik babesten dira.
- b) Sortzen direnetik babesten dira.
- c) SGAEri ordaintzen zaionetik babesten dira.
- d) Guztiak okerrak dira.

86.- Hauek dira jabetza intelektuala osatzen duten eskubideak:

- a) Izaera moralekoak eta ondare-izaerakoak.
- b) Etikoak, eta konpentsazio-eskubideak.
- c) Obraren ustiapenarekin erlazionatuak, eta ondare-izaerakoak.
- d) Guztiak okerrak dira.

87.- Hauek dira egile-eskubideen subjektuak:

- a) Fonograma-produktuak.
- b) Irratigintza-entitateak.
- c) Argazki hutsen sortzaileak.
- d) Guztiak egia dira.

88.- Zein da Espainian aktore eta dantzarien jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituen sozietatea?

- a) SGAE
- b) AIE
- c) AISGE
- d) AGEDI

89.- Xede-ikuslegoaz dihardugularik, zerbitzuaren logikatik, honela baloratzen dugu ikuslegoa:

- a) Kontsumatzaile edo erosle gisa.
- b) Ibilbide luzeko bezero gisa.
- c) Hartzaile gisa.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

90.- Zein helburu du marketin kolaboratiboak, Ikuslegoen Kudeaketarako Planean?

- a) Ikuslegoek kultur esperientzietara sarbidea izateko eskubideak beregana ditzatela.
- b) Ibilbide luzeko harreman gogobetegarriak eraikitzea, entitate sustatzaileen eta ikuslegoen artean.
- c) Ikuslegoak balio-proposamenen planifikazioan eta garapenean prosumitzaile gisa parte har dezala lortzea.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

91.- Zer neurtzen du efizientziak?

- a) Onuraren eta inbertsioaren arteko erlazioa.
- b) Erabilitako baliabideen eta lorpenen arteko erlazioa.
- c) Helmuga eta helburuen lorpen-maila.
- d) Lortutakoaren portzentajea, planifikatuaren aldean.

92.- Ikusleak erakartzeko estrategiatzat ezagutzen dira honetara bideratutakoak:

- Eskaintako jarduerak kontsumitzeko interesa sortzera.
- Erabiltzaileak antolakuntza-sisteman nahastera, haien konpromisoa eta interesa bultzatzera.
- Bazkide-harremana mantentzera.
- Sarreraren prezioa jaistera.

93.- Arte eszenikoetara zuzendutako Ikuslegoen Kudeaketarako Planak lantzeko orduan, eskari-estadioetan oinarritutako garapen-eredu batean, zer ari gara eskari latenteko ikuslegoez dihardugarik?

- Ikuslego ez aktiboak, interesatzen zaizkien kultur praktiketara iristeko barrera edo erresistentziak dituztenak.
- Kontsumitzaile errektiboak, kultur praktikaririk gabeak.
- Ikuslego ez aktiboak, kultur praktikan parte hartzeko interesik ez dutenak.
- Kontsumitzaile proaktiboak, kontsumo-ohitura erregularrak dituztenak.

94.- Helburu hauetatik zein lortu nahi da arte eszenikoen arloko Ikuslegoen Kudeaketarako Planaren bitartez?

- Parte hartzen duten herritarren garapen pertsonalean laguntzea.
- Gauzatzen deneko kultur komunitatearen kohesio sozialean eta garapenean laguntzea.
- Finantza-iraunkortasunean laguntzea, edo proiektu eszenikoen ustiapen gogobetegarrian.
- Guztiak zuzenak dira.

95.- Gasteizko Kultura Plan Estrategikoaren dokumentuak hauek sartzen ditu bere programa egituratzaileen artean: (Aukera OKERRA adierazi)

- Vitoria-Gasteiz Participa.
- Kultura KM0.
- Garatu Gasteiz, izan Gasteiz.
- Arte- eta kultur prestakuntzarako plana.

96.- Udaleko Kultura Zerbitzuak antzerki-ikastaroak eskaintzen ditu gizarte-etxeetan, jarduera artistikorako hastapen-ikastaroen programazioan. Norentzat dira?

- Nagusientzako ikastaroak eta haurrentzako ikastaroak.
- Nagusientzako ikastaroak eta gazteentzako ikastaroak.
- Nagusientzako ikastaroak, gazteentzako ikastaroak eta haurrentzako ikastaroak.
- Nagusientzako ikastaroak, gazteentzako ikastaroak, haurrentzako ikastaroak eta familientzako ikastaroak.

97.- Udal instalazioetako abonatuak, Kultura Zerbitzuak gizarte-etxeetan eskaintzen dituen jarduera artistikorako hastapen-ikastaroetakoren batean izena eman nahi dutelarik —besteak beste arte eszenikoekin zerikusia duten ikastaroetan—...

- % 20ko murrizketa dute matrikularen prezioan.
- % 30eko murrizketa dute matrikularen prezioan.
- % 40ko murrizketa dute matrikularen prezioan.
- Lehentasuna dute abonatu ez direnen aldean.

98.- Antzoki Sarearen Atalak gizarte-etxeetan programatzen dituen ikuskizunetarako sarrera-salmenta honela egiten da:

- Online, telefonoz edo Principal antzokiko leihatilan.
- Online, telefonoz, Principal antzokiko leihatilan edo emanaldia izango den gizarte-etxean.
- Online, telefonoz, Principal antzokiko leihatilan edo Antzoki Sarearen Atalak kudeatzen dituen antzokiak dauden gizarte-etxeetako edozeinetan.
- Online, telefonoz, Principal antzokiko leihatilan edo edozein gizarte-etxetan.

99.- Udalaren Antzoki Sareko antzokien araudi orokorrean aurreikusten da tasak ordaintzetik salbuetsi ahal izango direla Gasteizko Udalarekin lankidetzatza-hitzarmena sinatua duten arte eszenikoen arloko entitateek, bertan jasotzen diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak gauzatzeko bada. Tasetatik salbuesteko modalitate horretan, entitateek...

- ez diote inongo gasturi aurre egin beharko.
- muntatu- eta desmuntatze-gastuei aurre egin beharko diete.
- aretozaintzak eta muntatze- eta desmuntatze-lanek sortutako gastuei aurre egin beharko diete, baita aretoa erabiltzeak sor ditzakeen bestelako gastuei ere.
- leihatilan bildutako diruaren portzentaje bat ordaindu beharko diote Udalari, emanaldietarako sarrerarik saltzen badute.

100.- Gasteizko Principal Antzokiko agertokiak...

- % 5eko inklinazioa du.
- % 2,5eko inklinazioa du.
- % 0ko inklinazioa du.
- % 1,5eko inklinazioa du.

101.- Gasteizko Principal Antzokiko agertokiaren gehieneko karga hau da:

- 150 kg/m²
- 550 kg/m²
- 450 kg/m²
- 250 kg/m²

102.- Gasteizko Principal Antzokiak, bere horniduran, hau dauka:

- STEINWAY & SONS Grand Concert D-274 piano bat eta HOSSESCHRUEEDERS piano bertikal bat.
- STEINWAY & SONS piano bertikal bat eta Concert HOSSESCHRUEEDERS piano bat.
- Grand piano STEINWAY & SONS bat.
- Bi STEINWAY & SONS piano: bertikal bat eta Grand Concert D-274 bat.

103.- Gasteizko Principal Antzokiaren horniduran honako hau dago:

- tul beltz azur escenic bat.
- azur escenic dantza-zoru bat, tul beltz bat, erretroproiektzio pantaila bat —PVC zuria, 12 x 8—.
- dantza-zoru bat, erretroproiektzio pantaila bat —PVC beltza, 12 x 8—.
- proiektzio frontaleko pantaila bat —PVC zuria—, dantza-zoru zuri bat.

104.- Gasteizko Principal Antzokiaren kutxa beltza honelakoa da:

- 470 gr/m²-ko belus beltza.
- 570 gr/m²-ko belus beltza.
- 270 gr/m²-ko belus beltza.
- 750 gr/m²-ko belus beltza.

105.- Gasteizko Principal Antzokiaren kutxa beltza honako hauek osatzen dute:

- 5 hanka, 5 banbalina, atzealde 1, 8 x 8-ko 2 atzealde.
- 5 banbalina, 5 hanka-pare, 15 x 8-ko atzealde 1, 12 x 8-ko atzealde 1.
- 5 hanka-pare, 5 atzealde eta 15x 8 eta 12 x 8-eko banbalinak.
- 5 hanka, 12 x 8-ko atzealde 1, 15 x 8-ko atzealde 1, banbalinak.

106.- Gasteizko Principal Antzokiak...

- iragazkien katalogo osoa du.
- ez du iragazkirik.
- eskaeraren arabera jartzen ditu iragazkiak.
- iragazkiak ditu.

107.- Gasteizko Principal Antzokiko argiztapen-hornidurak hau dauka:

- a) PC, fresnela, errekorreak eta foku mugikorrak.
- b) Fresnela, PC, foku robotizatuak eta errekorreak.
- c) Errekorreak, fresnela eta PC.
- d) Par led, PC, errekorreak eta fresnela.

108.- Gasteizko Principal Antzokiak, bere soinu-horniduran, hau dauka:

- a) YAMAHA mahai analogiko bat.
- b) YAMAHA M7CL 32 ch mahai bat.
- c) Bi YAMAHA mahai analogiko.
- d) Ez du soinu-mahairik.

109.- Musika talde hauetatik, zein ez jatorriz Gasteizkoa?

- a) The Soulbreaker Company.
- b) Sumision City Blues.
- c) Los Misterios.
- d) We Are Standard.

110.- Abesbatza / fundatzailea. Binomio hauetatik, zein da okerra?

- a) Araba abesbatza / Sabin Salaberri.
- b) Manuel Iradier abesbatza / Emilio Ipintza.
- c) Samaniego abesbatza / Enrike Ruiz de Gordo.
- d) Camerata Gasteiz / Sabin Salaberri.

111.- Azkena Rock jaialdia:

- a) 16. edizioa izango du 2019an, Mendizabaleko esparruan.
- b) 18. edizioa izango du datorren ekainaren 28an eta 29an.
- c) 17. edizioa izango du, ekaineko laugarren asteburuan, Mendizabaleko esparruan.
- d) Beti izan da Mendizabaleko esparruan, eta 2008ra arte irailean izaten zen.

112.- Gasteizko Jazzaldia:

- a) 1977an sortu zen, Jazzteiz izeneko kolektibo batetatik. Hortaz, 43. edizioa izango da 2019koa. Euskadin egiten diren jazz jaialdietatik zaharra da.
- b) Lehen denboraldiaren ondoren —La Blanca kiroldegian izan zen—, bigarren edizioa Mendizorrotzeko kiroldegian izan zen.
- c) Hasieran bi eguneko iraupena izan zuen, gero hirukoa, eta, 1995az geroztik, aste oso bat hartzen du.
- d) Mendizorrotzeko kiroldegiaz gain, hainbat espaziotara zabaldu da jaialdia, hala nola Principal antzokira, NH Canciller Ayala hotelera eta Artium museora.

113.- Ikastaro hauetatik, zein ez da ematen José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioan?

- a) Dantza aurreko ikastaroa, 7 urteko haurrentzat.
- b) Ikasketa profesionalak, dantza-ezagutzak dituztela egiaztatzen duten gazteentzat.
- c) Kontaktu ikastaroa, dantzari ekin nahi dioten helduentzat.
- d) Gradu ondoko ikastaroa, dantza-ikasketa profesionaletan titulatuentzat.

114.- Gasteizko arte eszeniko garaikideetarako zentro independentea da, sorkuntza, zabalkundea, erakustaldiak eta prestakuntza barne hartzen dituena:

- a) Baratza aretoa.
- b) Traspasos.
- c) La Monstrenka.
- d) Azala espazioa.

115.- 2018ko lehen sei hilekoan izan zen Gasteizko Kultura Plan Estrategikoaren diagnosi-fasea, zeinek honako hauek bildu baitzituen:

- a) Saio sektorialak, sektore arteko saioak eta *backcasting* prozesua.
- b) Sektore arteko saioak, bilerak udal teknikariek eta jardunaldi irekiak.
- c) Sektore arteko saioak, elkarrizketak udal teknikariei eta bilerak ordezkariei politikoei.
- d) Sektore arteko saioak, bilera talde eragilearekin eta *backcasting* prozesua.

116.- Zer dira Gasteizko Kultura Plan Estrategikoaren balioak?

- a) Plana inplementatzeko prozesuan jarduteko eraren oinarri diren printzipio etikoak dira. Ez dute ahalbidetzen portaera-jarraibide batzuk sortzea.
- b) Plana inplementatzeko prozesuan jarduteko eraren oinarri diren gobernantza-ereduak dira. Portaera-jarraibide batzuk sortzea ahalbidetzen digute.
- c) Plana inplementatzeko prozesuan jarduteko eraren oinarri diren printzipio etikoak dira. Portaera-jarraibide batzuk sortzea ahalbidetzen digute.
- d) Plana inplementatzeko prozesuan jarduteko eraren oinarri diren gobernantza-ereduak dira. Ez dute ahalbidetzen portaera-jarraibide batzuk sortzea.

117.- Gasteizko Kultura Plan Estrategikoaren lan-ildoen barruan, helburu hauetako zeinek ez du bilatzen gobernantza demokratiko eta parte-hartzailea?

- a) Komunikazio-estrategia koherenteak bultzatzea, hiritarren eta kultur eragileen informazioa, debatea eta ezagutza bermatzeko.
- b) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak bultzatzea kulturaren profesionalentzat, kulturara iristeko eta kultura erreproduzitzeko dauden edo agertzen hasi diren formek kulturaren, gizartean eta ekonomian dituzten inplikazioen gainean.
- c) Udalaren, inguruko hirien, lurraldeko gobernuaren eta gobernu autonomikoaren arteko lankidetzaren sustatzea, kultur politikaren alorrean batera aritzeko.
- d) Koordinazio horizontaleko mekanismoak sustatzea kulturaren eremuan erantzukizunak dituzten sail guztien artean.

118.- Gasteizko etorkizuneko erronka hauetatik, zein jotzen da ezinbestekotzat Kultura Plan Estrategikoan?

- a) Plan estrategikoa bera abian jartzea.
- b) Plan estrategikoa 2018-2021 urteetako aurrekontuetan isla edukitzea.
- c) Kultur enpresei laguntzea.
- d) Diziplina arteko kultur sorkuntzarako zentro bat abian jartzea.

119.- Zein da SGAEk toki-korporazioei eta administrazio publikoari leihatila dagoen musika-kontzertuetan aplikatzen dien tarifa?

- a) Egile-eskubideak direla eta, leihatilako diru-sarreraren % 10, BEZ barne.
- b) Egile-eskubideak direla eta, leihatilako diru-sarreraren % 10, BEZ kenduta.
- c) Egile-eskubideak direla eta, leihatilako diru-sarreraren % 8,5, BEZ barne.
- d) Egile-eskubideak direla eta, leihatilako diru-sarreraren % 8,5, BEZ kenduta.

120.- Antzezlan baten estreinaldia dela eta ematen diren doako sarrerek edo gonbidapenak, kontuan hartu behar al dira egile-eskubideak kalkulatzeko orduan?

- a) Bai, beti.
- b) Ez, inoiz ez.
- c) Ez, baldin eta denboraldiko lehenengo emanaldia bada, antzoki horretan.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.